

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

2026rako enplegu publikoaren eskaintza onartzea

Aguraingo Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko otsailaren 27an egindako ezohiko bilkuran, 2026ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokionez, honako erabaki hau hartu zuen. Honela dio xedapen-zatian:

1) Aguraingo Udalaren 2026ko lan eskaintza publikoa onartzea.

A) Txanda irekia.

Tasa arruntaren bidez: (4).

— Administrazio orokorreko teknikari plaza bat, A1 azpitaldea, idazkaritzako teknikariaren lanpostuari lotua (Kodea: 1112), 3. hizkuntza-eskakizunarekin, 2026ko otsailaren 26ko derrigortasun-datarekin.

— Administralari plaza bat, administrazio Orokorreko eskalakoa, administralarien azpieskalakoa, C1 azpitaldekoa, administralarien lanpostuari lotua (Kodea: 1134), 3. hizkuntza-eskakizuna eta 2026ko otsailaren 26ko derrigortasun-data.

— Udaltzaingoko agentearen 2 plaza, C1 azpitaldea, udaltzaingoko agenteen lanpostuei lotuta (Kodea: 4041 eta 4042), 2. hizkuntza-eskakizunarekin, 2006ko apirilaren 20ko derrigortasun-datarekin.

Tasa espezifikokoaren bidez: (9).

— Administralari plaza bi, administrazio orokorreko eskalakoak, administralarien azpieskalakoak, C1 azpitaldekoak, bi lanposturi lotuak:

1. HAZeko administralaria (Kodea: 1135): 3. hizkuntza-eskakizuna; derrigortasun-data: 2026ko otsailaren 26.

2. HAZeko administralaria (Kodea: 1136): 3. hizkuntza-eskakizuna; derrigortasun-data: 2026ko otsailaren 26.

— Administrazio bereziko erdi-mailako teknikari plaza bat, A2 azpitaldea, ingurumeneko teknikari lanpostuari lotua (Kodea: 2421); 3. hizkuntza-eskakizuna; derrigortasun-data: 2025ko irailaren 25.

— Administrazio bereziko goi-mailako teknikari plaza bat, A1 azpitaldea, arkitekto lanpostuari lotua (Kodea: 2411); 3. hizkuntza-eskakizuna; derrigortasun-data: 2025ko irailaren 25.

— Liburuzain plaza bat, administrazio bereziko liburuzain lanpostu bati lotua (3541 kodea), azpieskala: zerbitzu bereziak, zeregin bereziak, C1 azpitaldea, 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data: 2000ko irailaren 27.

— Peoi/langile plaza bat, langile lanpostu bati lotua (Kodea: 2461), administrazio berezikoak, zerbitzu berezien azpieskalakoak, lanbideetako langileen motakoak, titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-taldekoak, 1. hizkuntza-eskakizuna dutenak, 2026ko otsailaren 26ko derrigortasun-datarekin.

— Hiru musika-irakasle plaza, musikako hiru irakaslerekin elkartuta (Kodea: 35706, 35711 eta 35715), A2 azpitaldea:

1. Musika-irakaslea: klarinetea eta saxofoia (Kodea: 35706): 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data: 2009ko apirilaen 30.

2. Musika-irakaslea: biolina (Kodea: 35711): 3. hizkuntza-eskakizunarekin, 2009ko apirilaren 30eko derrigortasun-datarekin.

3. Musika-irakaslea: biolontxelo (Kodea: 35715): 3. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data: 2012ko abenduaren 31.

B) BARNE SUSTAPENEKOTXANDA:

— Brigadako arduradunaren plaza bat, brigadako arduradunaren lanpostuari lotua (Kodea: 2451), administrazio berezikoa, zerbitzu berezien azpieskala, lanbideetako langileen mota, C2 azpitaldea, 2. hizkuntza-eskakizuna, 2026ko otsailaren 26ko derrigortasun-datarekin.

2) 2026ko enplegu publikoaren eskaintzan jasotzea tasa arrunterako kontuan hartu direla 2026ko ekitaldi honetan izandako bajak, eta, horren ondorioz, plaza horiek hurrengo ekitaldiko berritze-tasatik kenduko direla.

3) Erabaki hau ALHAOn eta Aguraingo Udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea.

4) Erabaki honen aurka, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, erabakia eman duen organo beraren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta.

Guztiek jakin dezaten ematen da horren berri.

Agurain, 2026ko martxoaren 4a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR